

Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Usurbil

Usurbilgo zarama bilketa, ze eredu sendoa!, kantatu beharko dugu hemendik aurrera. Aspaldiko partez Gipuzkoan etxeko hondakinen inguruko eztabaidak, kudeaketa, plangintza eta mobilizazioak herrialde honen politikaren erdigunean egon dira.

Nola ez, jakina, Foru Aldundiak Zubietan errauskailu bat ezartzeko hartu duen erabakia ez zaio gipuzkoar askori gustatu. Hamabost urte inguru dira Diputazioak etxeko zaborrak erretzeko –edo balioztatzeko esan beharko nuke?– *Zergarbi* proiektua bertan behera utzi zuela, eztabaida, mobilizazio eta polemika luzearen ondorioz. Garai hartan, hondakinen “balorapen energetikoa” garestiegi ateratzen zela argudiatu zuen.

Auzi sozio-ekologikoetan maiz gertatzen den moduan, urte batzuk pasa eta gero, erretiratutako proiektua berriz ere mahai gaineratu egin zuten eta errauskailuaren mamua agertu zen herriz herri: Lasarte-Orian, Zestoan, Urnietan... ibili zen Zubietan kokatu arte.

Horregatik Usurbilen gertatutakoa eredugarria da oso. Txikiegia, esango digute zarama erretzearen aldekoek, baina ereduek, txikiak direnek ere, jarraitzeko eta ugaltzeko bideak erakus-



INIIGO AZKONA

ten dituzte. Ez dezagun ahaztu Usurbilen asmo eta iritzi ekologistek herri kontsulta galtzeko arrisku handia zutela, eta ez da ahaztu behar atez atekoaren aurkariek botoen %43a lortu zutela. Hots, patata beroa dugu etxeko hondakinen politika Gipuzkoan eta ausardiaz eta trebezia aritu dira Usurbilgo Udal Gobernuaren zein Dudi elkartearen. Eredua erein dute eta laster fruituak ikusiko ditugu. Ez da erraza proiektu eta politika neoliberalen aurka aritzea, ez hemen ez inon. Zirrikitu gutxi uzten ditu sistema kapitalistak bide alternatiboak urratu ahal izateko, baina Usurbilgo herri kontsultak demokrazia parte-hartzailea berpiztu du. Demokrazia bera. Eta gogorazi digu ez dagoela bide laburrik gure inguruan ezartzen diren proiektu txikitzaileak geldiarazteko. Hau da, herritarren ahotsen indarra da azpiegitura erraldoien aurka eraiki daitekeen horma bakarra. Iparraldean ere erakutsi digute nola borrokatu daitekeen AHTren bide berrien aurka: aliantza, herri kontsulta eta mobilizazio zabalak egin. Usurbilgo adibide ederra euskal politikaren arlo guztietara eramaten jakin beharko genuke, politika eraikitzaile eta alternatiboei txanda emateko. ■

« Usurbilen gertatutakoa eredugarria da oso. Txikiegia, esango digute zarama erretzearen aldekoek, baina ereduek, txikiak direnak ere, jarraitzeko eta ugaltzeko bideak erakusten dituzte »

TXANDAN

Andoni Mujika



Kooperatibak eta herrigintza, alegia. Ezaguna da koo-

peratibek printzipioak dituztela: enpresa kapitalistek beren idearioetan ez daukaten konpromiso sorta plus bat. Hauen artean, beren herriarekin daukaten konpromisoa esplizituki jasotzen da. Aspaldian, zenbait faktore elkartu dira eta gure herrian ernalduta eta hazi diren erakunde sozio-ekonomiko hauek ez dute desiragarria izango litzatekeen besteko jarrera aktiborik herri txiki honen etorkizunaren estrategiarekin. Faktoreok dira: bat, enpresa hauetako liderantza exekutiboaren indarra gailentzen dela behin eta berriz bere beste indar insti-

Kooperatibak...

tuzionalaren gainetik, bi, lider kooperatibo euskaldunen autozentsura bat une erabakigarrietan, hiru, Espainia mailan saldu beharra, eta lau, errazagoa eta modernoagoa dela holako aspektuei inportantzia ez ematea. Erakunde kapitalista batzuek, sinesgaitza bada ere, perspektiba hau garbiago izan dute. Herri honetako talde kooperatibo indartsuean, herri honen interes ekonomiko orokorrari erreparatu beharra dago. Herritarrok, politikook, eta agente ekonomiko-sozialek, hauek bereziki, herri perspektiba izan behar dute. Beste herri batzuetan eragile ekonomiko/politikoek garbi samar daukatena zalantzan izan dezakegu hemen. ■